

# AZKEN EGUNA

## 22. Korrika

AEKide hauen aipamena egingo dut:

- Jokin Irigoien Diez
- Itziar Lastiur Zabala

Tipi-tapa, tipi-tapa... KORRIKA!  
Tipi-tapa, tipi-tapa... KORRIKA!

1980, Oñati; elurra mara-mara eta elizako kanpai-hotsak din-don, din-don... Erein dugu hazia, euskararen hazia. **"Esan bai euskarari!"**. Denok, zeuek ere bai! Bai euskarari! Eta aurrera egingo dugu eta entzungo dugu **"herriaren erantzuna euskararen alde"**, eta batzuoak oihukatuko dugu: **"Euskaraz eta kitto!"**, Eta tipi-tapa aurrera jarraitzen dugu, **"Herri bat, hizkuntza bat"**. Zergatik? Euskara gurea delako, **"Euskara, zurea"** egin behar duzulako. Nola, ordea? **"Euskara, korrika eta kitto"?** **"Korrika euskaraz; Euskaraz Euskal Herria"?**

Ikustea besterik ez dago, begirada plazan jartzea, ñir-ñir egiten duten begietan murgiltzea; kantu bat gara, itsasoa gara: **"Denok maite dugu gure herria euskaraz!"**. Hortaz, **"Jalgi hadi euskaraz!"**, eta bitartean denok mugimenduan, elkarrekin eta elkarlanean, **"Euskal Herria Korrika"**.

Eta zer dago politagoa **"Zu eta ni euskaraz"** entzutea baino? Horrek ahalbidetzen du **"Mundu bat euskarara biltzea"**. Eta horrela ikusiko dugu **"Herri bat geroa lantzen"**, **"Euskal Herria euskalduntzen..."** eta **"... ni ere bai"**, zeu, geu...

Horretarako, **"Heldu hitzari, lekukoari, elkarlanari, euskarari, herriari"**... Haur, heldu eta gazte, **"Ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira!"**, **"Maitatu, ikasi, ari..."** euskaldun kalakari eta **"Eman Euskara Elkarri"**, **"Euskahaldun"**du gaitezen, **"Batzuk"** eta besteak, elkarren gogoia **"Klika"**tuz!

Eta Euskal Herriko mendietan, bertan hazten segitzen duen txilarrari adi, zera entzungo dugu: "Euskara da euskaldunon aberria". *Pourquoi ?*, batzuek; *¿Por qué?*, besteek. Zergatik? Izaite bat ez daikeelako hezur hutsez osa; herria delako gorputza, eta hizkuntza bihotza. Bada garaia gutxiago maitatu eta gehiago gozatzeko!

Urteak urte eta aldarriak aldarri, ekin diezaioگون! **"Hitzekin!"**, ekintzekin! Urruñatik Lesakara; Lesakatik Berastegira; Berastegitik Mutrikura; Mutrikutik Murgiarra; Murgiatik Lizarrara; Lizarratik Baigorriara; Baigorritik Maulera; Mauletik Lodosara... Tipi-tapa!

Heldu gara, bai, hitza ahoan, irribarrea aurrez aurre. Baina dena ez da nahi bezain koloretsua, ez. Euskararen hazia ez da ernatu leku guztietan, alarma gorriak pizten hasiak dira. Batzuoak, tipi-tapa, erein dugu hazi hori, baina ez da nahikoa, ez. Erein genuen haziak hamaika lore izan ditu, baina, lore horiek fruitua eman dezaten, ekin, eragin eta eginarazi behar dugu. Heldu da ordua mihia dantzan jartzeko, aldekotasunetik konpromisora jauzi egiteko, urteetako aldarriek jomuga topa dezaten! Bai eta aldarri horiei erantzuna emateko ere! Entzun gaitzazue! Eta erantzun!

1980, Oñati; elurra mara-mara eta elizako kanpai-hotsak din-don, din-don... Aurrera jarraitzen dute urteek... Eta 2022an, ereindako haziak errotu ditu sustraiak, loreak loratzen ari dira fruituak emateko gertu. Denok egingo dugu, eragingo dugu, eginaraziko dugu! Haur, heldu eta gazte, euskaldun eta erdaldun, eragile eta agintari! Egin BEHAR dugu, eragin BEHAR dugu, eginarazi BEHAR dugu! Loreek biziraun behar dute, arantzak kendu behar dizkiegu, bizi berri bat eman. Jaio naiz libre izateko, eta ez loturik egoteko!!!

GORA AEK! GORA EUSKAL HERRI EUSKALDUNA!

Tipi-tapa... KORRIKA!

Tipi-tapa... KORRIKA!